



## Alkatearen Dekretua / Decreto de Alcaldía

### 2025/2026 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntza Subvención para el aprendizaje de euskera para el curso 2025/2026

Expte. Zbk.- / N° de exp.

2026-02264

Euskara Arloaren 2026ko uztailaren 3ko 114AE-2026 zenbakiko txostena ikusi da. Bertan, 2025/2026 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak argitaratzea proposatzen da.

Visto el informe nº 114AE-2026 del Área de Euskera de fecha 3 de julio de 2026 en el que se propone la publicación de la convocatoria y bases reguladoras de la subvención para aprender euskera en el curso 2025/2026.

Uztailaren 13ko 208/2026 zb.ko Udal Kontuhartzailetzak egindako txostenaren edukia aztertu da.

Visto el informe de fiscalización favorable de la Intervención Municipal nº 208/2026 de fecha 13 de julio de 2026.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta.

Considerando lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Alkatetza honek, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion ahalmenak erabiliz, eta zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21. artikulua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 41. artikulua.

Esta Alcaldía, en uso de las facultades que le atribuye la legislación vigente, y en concreto el artículo 21 de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y del artículo 41 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

#### EBATZI DUT

#### RESUELVO

- 2025/2026 ikasturtean Euskara ikasteko dirulaguntza emateko deialdia onartzea.
- 2025/2026 ikasturterako Euskara ikasteko Laguntzen oinarriak onartzea, jarraian zehazten diren bezala:

- Aprobar la convocatoria para la concesión de la subvención para el aprendizaje del Euskera durante el curso 2025/2026.
- Aprobar las bases reguladoras de las Ayudas para el Aprendizaje del euskera para el curso 2025/2026, que se describen a continuación:



## **2025/2026 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntza arautzen duten oinarriak**

### **1. Xedea**

Baldintza hauen guztien helburua edo xedea zera da: 2025/2026 ikasturtean euskara ikasi duten etxebarritar helduei euskaltegiko ikastaroetarako ordaintzeko dirulaguntza oinarriak ezartzea. Ikastaroez gain, barnetegiak eta egonaldiak ere diruz lagunduko dira.

Era berean Udako Euskal Unibertsitatean egindako ikastaroak ere diruz laguntzea.

Laguntzaren objektuarekin zuzenean edo objetiboki onuradunak izan dituen gastuak izango dira diruz lagungarriak kontuan hartuta, 2005eko martxoaren 17ko osoko bilkuran onartutako Dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorra eta indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

2005eko Ordenantza Orokorrean eta indarrean dagoen Plan Estrategikoan aurreikusitako baldintzen arabera deskribatutako herritarrak izan daitezke onuradun.

### **2. Onuradunak**

2005eko martxoaren 17an udalbatzak onartu zuen Diru-laguntzen Ordenantza Nagusiak xedatzen dituen pertsonak izan daitezke diru-laguntza hauen onuradunak.

Deialdi honetan parte hartzeko beharrezkoa izango da Etxebarrin errolatua egotea. Betebehar hau Udalak ofizioz ziurtatuko du.

### **3. Diru-laguntzaren gehieneko kopuruak**

Udal aurrekontuan deialdi honetarako agertzen diren kredituak ondoko hauek dira:

a) Dirulaguntza ikasleentzat, gurasoentzat, aitite/amamentzat eta begiraleentzat: 12.000,00 euro 3350.48000 aurrekontu partidan.

Diru-laguntza hauek beste entitate publiko zein pribatuengandik jaso daitezkeen beste diru-laguntza, sarrera edo laguntzekin bateragarriak dira Dirulaguntzen Ordenantza Nagusiak xedatzen dituen

## **Bases reguladoras de la subvención para el aprendizaje del euskera para el curso 2025/2026**

### **1. Objeto**

Las presentes bases tienen por objeto establecer las normas que han de regir la concesión de subvención a personas adultas residentes en Etxebarri que realicen cursos de euskera en el curso 2025/2026. Además de los cursos, también serán subvencionables los barnetegis y estancias para aprender euskera.

Del mismo modo, también recibirán subvención los cursos de verano realizados en la Universidad del País Vasco.

Serán subvencionables los gastos realizados por el beneficiario que se encuentren directa y objetivamente relacionados con el objeto de la subvención, teniendo en cuenta la Ordenanza General de Concesión de Subvenciones aprobada por acuerdo plenario de fecha 17 de marzo de 2005 así como el Plan Estratégico de Subvenciones vigente.

Podrán ser beneficiarias las personas descritas bajo las condiciones previstas en la mencionada Ordenanza General del 2005 y Plan Estratégico vigente

### **2. Beneficiario/as**

Podrán ser beneficiarias las personas bajo las condiciones previstas en la Ordenanza General de Subvenciones aprobada por acuerdo plenario de fecha 17 de marzo de 2005.

Para la presente convocatoria es preciso estar empadronado/a en Etxebarri, extremo que será verificado de oficio por el Ayuntamiento.

### **3. Cuantía global máxima objeto de ayuda**

El crédito destinado a la presente convocatoria según consta en el presupuesto municipal vigente es el que se detalla a continuación:

a) Subvención para alumnos/as en general, padres/madres, aitites/amamas y monitores/as: 12.000,00 euros con cargo a la partida presupuestaria 3350.48000.

Estas ayudas son compatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos procedentes de otras entidades públicas o privadas en los términos establecidos en la Ordenanza General de

baldintzetan.

Subvenciones.

#### 4. Eskerak aurkezteko epea.

Eskerak aurkezteko epea irailaren 1ean hasiko da eta irailaren 30ean amaituko da. Eskera Etxebarriko Alkateari zuzenduko zaio eta Etxebarriko udalaren Erregistro orokorrean aurkeztuko da Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezartzen duen edozein bide erabiliz eta Udal Euskara Zerbitzuan eskuragarri dagoen eredia erabiliz edota udalaren web orritik hartuta ([www.etxebarri.eus](http://www.etxebarri.eus)).

#### 4. Solicitudes y plazo de presentación

El plazo para presentar las solicitudes comenzará el 1 de septiembre y finalizará el 30 de septiembre. La solicitud, dirigida al alcalde de Etxebarri, se presentará en el Registro General del Ayuntamiento de Etxebarri o por cualquiera de los medios señalados en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas, con arreglo al modelo normalizado, disponible en el Servicio Municipal de Euskera y en página web del ayuntamiento ([www.etxebarri.eus](http://www.etxebarri.eus)).

#### 5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskera sinatzen duenaren NAN edo IFZ ren fotokopia.
2. Ikaslea matrikulatu den euskaltegiaren ziurtagiria (Etxebarritik kanpo ikasi dutenentzat). Bertan honako datuok zehaztu beharko dira:
  - a) Ikaslearen hasiera-maila eta lortu duen maila.
  - b) Aprobetxamenduari buruzko kalifikazioa.
  - c) Asistentzia maila. Euskaltegiak emandako orduak eta ikasleak jasotakoak.
  - d) Beste administrazio edo erakunderi eskatutako edo lortutako diru-laguntzen zinpeko aitormena.
3. Gurasoen eta aitite/amamen kasuan, seme-alaben Familia Liburuaren orrialdearen fotokopia.
4. Kirola, Kultura eta Astialdi begiraleen kasuan, dagokion taldearen/elkartearen ziurtagiria, 2025/2026 ikasturtean Etxebarrin lanean aritu dela ziurtatzen duena.
5. Beste administrazio edo erakundeei eskatutako, eta hala badagokio, haiengandik jaso diren diru-laguntzen zinpeko aitormena, baita euskara-ikastaroa egiteko eskatu eta/edo lortu diren ikastaroena ere.
6. Diru-laguntzen Ordenantzaren 10.arti-kuluak xedatzen dituen ezintasunak ez daudela adierazten duen zinpeko aitormena.

#### 5. Documentación a presentar:

1. Fotocopia del DNI/NIF de la persona firmante de la solicitud.
2. Certificado del Euskaltegi donde el alumno/a esté matriculado/a (para el alumnado que estudie fuera de Etxebarri). En dicho certificado deberán constar los siguientes datos:
  - a) Nivel inicial y nivel adquirido por el alumno/a.
  - b) Calificación del aprovechamiento del curso.
  - c) Porcentaje de asistencia a las clases. Horas totales del curso y horas reales del alumno/a.
  - d) Declaración jurada de subvenciones solicitadas y recibidas de otras administraciones e instituciones.
3. En el caso de padres/madres, aitites/amamas, presentar copia del Libro de Familia de los/as hijos/as.
4. En el caso de Monitores/as de Deporte, Cultura y Tiempo Libre, presentar el certificado de su correspondiente grupo o asociación acreditando haber estado en activo en Etxebarri durante el curso 2025/2026.
5. En caso de haber solicitado otras ayudas a otras administraciones o entidades, declaración jurada de la ayuda recibida, así como las peticiones y concesiones por curso en euskera.
6. Declaración jurada de no hallarse incurso en ninguna causa de prohibición de las previstas en el artículo 10 de la Ordenanza de Subvenciones.

Baldintza hauetan guztietan agertzen diren xehetasunak zein 2005eko martxoaren 17an onartu Dirulaguntzen Ordenantza Nagusiak xedatzen dituenak, onartu egiten dira eskaera aurkeztearekin

La presentación de solicitud implica la aceptación de la totalidad de la regulación descrita en las presentes Bases y, tanto en la Ordenanza General de subvenciones aprobada por acuerdo plenario de fecha

batera.

Aurkezten den dokumentazioan hutsunerik balego edo baldintza hauetan xedatzen dena beteko ez balitz, hamar eguneko epea zabalduko litzateke hutsuneak bete, akatsak zuzendu, edo falta diren agiriak aurkeztu ahal izateko. Egin beharreko zuzenketak epe horretan egingo ez balira eskaera bertan behera geratuko litzatekeela jakinaraziko zaio interesdunari.

#### 6. Deialditik kanpo geratzen direnak.

Dirulaguntzen Ordenantza nagusiak xedatzen dituen arrazoiengatik kanpoan geratzen direnekin batera eskabideak aurkezteko egunean udal ogasunaren zerga ordainketetan egunean ez daudenak edo aldez aurretik jasotako diru-laguntzaren bat zuritu edo justifikatu gabe daukatenak ere deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

Agiriak edo dokumentazioa aurkezteak ez dakar berez aurkeztutakoaren onarpena.

#### 7. Dirulaguntzak emateko prozedura.

Sariak ematea lehiakortasun konkurrentzia erregimenean burutuko da, dagoen kredituaren mugen barruan, azaroaren 12ko 38/2003 Legearen 22, 23 eta 24.artikuluetan ezarritakoa betez.

Kreditua hainbanatu egingo da dirulaguntza eskatu eta baldintzak betetzen dituztenen eskatzaileen artean, deialdian kontsignatutako aurrekontu-kreditua agortu arte.

#### 8. Eskaerak baloratzeko irizpideak.

Eskatzaileak baldintzak bete eta kanpoan geratzeko arrazoirik egon ezean diru-laguntzak emateko ondoko irizpideak erabiliko dira:

Dirulaguntza lortzeko, ikasleak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Ikastaro mota guztietan asistentzia gutxienez %70ekoa izan dela egiaztatzea.
- Ikastaroaren aprobetxamendu egokia egitea. Kolektibo berezien kasuan (begiraleak, gurasoak eta aitite/amamak) irakasleak egindako ikaslearen banakako txostena ere baloratuko da.
- Autoikaskuntza sisteman ikasleak honako baldintzak bete beharko ditu:
  - Tutoretza saioetan %90 asistentzia betetzea.
  - Aprobetxamendu eta aurrerapen egokia

17 de marzo de 2005.

Si la documentación presentada es incompleta o no reúne los requisitos exigidos por las presentes bases, se requerirá para que en un plazo máximo de 10 días se subsanen las faltas o se acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se tendrá por desistida la petición, previa resolución dictada al efecto.

#### 6. Exclusiones

Además de las causas establecidas en la Ordenanza General de Subvenciones, no podrán obtener subvención alguna aquellas personas solicitantes que en la fecha de presentación de instancias no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Municipal o no hayan presentado la documentación justificativa de subvenciones concedidas con anterioridad.

La mera presentación de la documentación justificativa no implica la conformidad de la justificación presentada.

#### 7. Procedimiento de concesión

El procedimiento de concesión será el de concurrencia competitiva, dentro de los límites de crédito cumpliendo lo establecido en los artículos 22, 23 y 24 de la Ley 38/2003 del 12 de noviembre.

El crédito se prorrateará entre todas las solicitudes que cumplan los requisitos hasta el agotamiento del crédito presupuestario consignado en la convocatoria.

#### 8. Criterios de valoración de las solicitudes.

Para la concesión de esta subvención, siempre que la persona solicitante cumpla los requisitos exigidos y no esté incurso/a en ninguna causa de exclusión, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Para poder acceder a la subvención el alumno/a deberá cumplir los siguientes requisitos:

- Acreditar la asistencia mínima del 70% a las clases.
- Acreditar el aprovechamiento adecuado. En el caso de colectivos específicos (monitores/as, padres/madres y aitites/amamas) se valorará el informe redactado por el profesor/a.
- En el sistema de autoaprendizaje se valorará el aprovechamiento del alumno/a bajo los siguientes parámetros:
  - 90% de asistencia a las sesiones de tutoría del alumno
  - Progreso y aprovechamiento adecuado

izatea (ikasturtean gutxienez urrats 1 edo 5 estrato/unitate aurreratzea).

e) Zenbatekoa.

Gainditutako urrats edo estrato kopuruaren arabera, matrikularen zenbatekoaren itzulera honako hau izango da:

**A) ESKOLA PRESENTZIALAK:**

- Ikasle arruntak: %50 arteko itzulera.
- Begiraleek, gurasoek eta aitite/amamek (0-10 urte bitarteko seme-alabak edo ilobak dauzkatena), %100 arteko itzulera izango dute. Gainontzekoek ikasle arrunten diru-laguntza jaso ahal izango dute.

| GAINDITUTAKO<br>URRATS/<br>ESTRATOAK | SARIA              |                                                                                           |
|--------------------------------------|--------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                      | IKASLE<br>ARRUNTAK | BEGIRALEAK /<br>GURASOAK<br>AITITE-AMAMAK<br>(0-10 urte bitarteko<br>seme-alabak, ilobak) |
| %100(guztiak)                        | %50                | %100                                                                                      |
| %50 (erdiak)                         | %30                | %50                                                                                       |
| %50etik behera                       | %15                | %25                                                                                       |

**B) AUTOIKASKUNTZA:**

BOGA soilik modalitatea, hau da, Internet saioetan soilik oinarritua, ez da diruz lagundua izango.

Gainontzeko modalitateei dagokienez:

- Ikasle arruntak: %50 arteko itzulera.
- Begiraleek, gurasoek eta aitite/amamek (0-10 urte bitarteko seme-alabak, ilobak) %70 arteko itzulera izango dute. Gainontzekoek ikasle arrunten diru-laguntza jaso ahal izango dute.

| GAINDITUTAKO<br>URRATS /<br>ESTRATOAK | SARIA              |                                                                                           |
|---------------------------------------|--------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                       | IKASLE<br>ARRUNTAK | BEGIRALEAK /<br>GURASOAK<br>AITITE-AMAMAK<br>(0-10 urte bitarteko<br>seme-alabak, ilobak) |
| %100(guztiak)                         | %50                | %70                                                                                       |
| %50 (erdiak)                          | %30                | %40                                                                                       |
| %50etik behera                        | %15                | %20                                                                                       |

**9. Diruz lagunduko diren ikastaroen ezaugarriak.**

a) Diruz lagunduak izango dira urte osoan zehar burututako ikastaroak. Bai urritik ekainera

realizado en el aprendizaje a través de Internet (avanzar 1 nivel o 5 estratos /unidad)

e) Cuantía.

En función de los niveles superados la cuantía de la ayuda podrá ser la siguiente:

**A) CLASES PRESENCIALES:**

- Alumnado en general: devolución de hasta el 50%
- Monitorado, padres/madres y aitites/amamas (con hijos/as, nietos/as entre 0 y 10 años): devolución hasta el 100%. El resto podrá acceder a las ayudas correspondientes a alumnos/as en general.

| NIVELES<br>SUPERADOS/<br>ESTRATOS | AYUDA                  |                                                                                             |
|-----------------------------------|------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                   | ALUMNADO<br>EN GENERAL | MONITORADO /<br>PADRES-MADRES<br>AITITES-AMAMAS<br>(hijos/as, nietos/as<br>entre 0-10 años) |
| %100 (todos)                      | 50%                    | 100%                                                                                        |
| %50 (la mitad)                    | 30%                    | 50%                                                                                         |
| Menos del 50%                     | 15%                    | 25%                                                                                         |

**B) AUTOAPRENDIZAJE:**

La modalidad solo BOGA, esto es, basado solamente en las sesiones a través de Internet no será subvencionada.

Respecto a las demás modalidades se establece lo siguiente:

- Alumnado en general: ayuda hasta el 50%
- Monitorado, padres/madres y aitites/amamas (hijos/as, nietos/as entre 0-10 años): devolución hasta el 70%. El resto podrá acceder a las ayudas correspondientes a alumnos en general.

| NIVELES<br>SUPERADOS /<br>ESTRATOS | AYUDA                  |                                                                                             |
|------------------------------------|------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|
|                                    | ALUMNADO<br>EN GENERAL | MONITORADO/<br>PADRES /MADRES<br>AITITES-AMAMAS<br>(hijos/as, nietos/as<br>entre 0-10 años) |
| 100%(todos)                        | 50%                    | 70%                                                                                         |
| 50% (la mitad)                     | 30%                    | 40%                                                                                         |
| Menos de 50%                       | 15%                    | 20%                                                                                         |

**9. Características de los cursos que serán objeto de ayuda:**

a) Serán objeto de ayuda los cursos realizados durante todo el año. Los realizados entre octubre y

egindakoak, bai udan uztaila, abuztua eta irailean egindakoak (ikastaro trinkoak, barnetegiak eta egonaldiak baita autoikaskuntza bidezkoak ere).

Edozein kasutan ere ikasle batek 2025/2026 ikasturtean burututako ikastaroetan gehienez jasoko duen laguntza 372,50 eurokoa izango da.

Matrikula bat baino gehiago egiten denean garestiena hartuko da kontuan.

Etxebarriko euskaltegian eskatzaileak nahi zuen ikastaro mota egon ez eta beste euskaltegiren batean Ikasi behar izan den egoeretan kasuan kasu aztertuko da gehienezko dirulaguntza.

- a) Ez dira diruz lagunduko:
- Ikastetxeek edo Guraso Elkarteek, eskolaz kanpoko jarduera gisa antolatutako ikastarorik.
  - Hizkuntza Eskola Ofizialean egindako ikastaroak lantokiko programen bidezko ikastaroak (IRALE, HAEE, Osakidetza...), ezta enpresa edo instituzioen eskutik diru-laguntza jasotzen duten ikastaroak.
- b) Esparru desberdinetako ikasle taldeak eratzen badira (dendariak, jubilatuak, eta abar.) baldintza bereziak ezartzea aztertuko da.
- c) Etorkinak: Udalak konpromisoa hartuko du sortzen diren beharretarako etorkinei euskara ikas dezaten erraztasunak emateko, etorkinen seme alabak hezkuntza ereduetan integratzeko laguntza emateko.
- d) 2026 urteko uztailan, abuztuan, eta irailean egindako ikastaroak ,2025-2026ko deialdi honetan barne hartuko dira.

## 10. Prozeduraren instrukzioa

Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra izango da Batzorde Erabakitzailea.

## 11. Laguntzaren diru-kopurua eta ordainketa.

Laguntzaren jakinarazpena jaso eta hilabeteren barruan ordainketaren %100 egingo da, eskatzaileari ez zaio horretarako bermerik eskatuko.

Ordainketak 2026ko abenduan egingo dira.

junio, y también durante los meses de julio, agosto y septiembre (cursos intensivos, barnetegis y estancias en familias y autoaprendizaje).

En cualquier caso, el importe máximo de la ayuda que el alumno/a podrá recibir por cursos realizados en el curso 2025/2026 será de 372,50 euros.

Cuando se realice más de una matrícula, se tendrá en cuenta la de mayor importe.

En aquellas situaciones en las cuales se haya realizado algún curso fuera del euskaltegi de Etxebarri porque el euskaltegi de Etxebarri no dispusiera del mismo, se examinará caso por caso la cantidad máxima a subvencionar.

- a) No serán objeto de ayuda:
- Cursos realizados por Centros escolares o AMPA como actividades extraescolares.
  - Cursos realizados en Escuelas Oficiales de Idiomas. Del mismo modo quedarán excluidos los cursos organizados por Entidades (IRALE, IVAP, Osakidetza...) o cursos que reciban ayudas de empresas o instituciones.
- b) Si surgieran grupos de alumnos/as de ámbitos específicos (comerciantes, jubilados/as, etc.) se planteará la posibilidad de establecer condiciones especiales.
- c) Colectivo migrado: El Ayuntamiento se compromete a dar una respuesta adecuada a la demanda que pueda surgir para prestar las ayudas necesarias para aprender euskera, ayudas a los hijos/as de inmigrantes de cara a la integración lingüística en los modelos educativos en euskera del municipio.
- d) Los cursos realizados en julio, agosto y septiembre de 2026 se incluirán en esta convocatoria de subvenciones del 2025/2026.

## 10. Instrucción del procedimiento

El Órgano Resolutorio será el alcalde u Órgano en quien delegue.

## 11. Importe y abono de la ayuda

En el plazo de un mes a partir de la notificación de la concesión de la ayuda, se procederá al pago del 100% de la misma, no exigiéndose para ello garantía alguna al solicitante.

Los pagos se realizarán en el mes de diciembre de 2026.

## 12. Zerrendak argitaratzea, jakinarazpena eta erreklamazio epeak.

Behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren interesatuak jakinarazpena jasoko du. Jasotzaileak 10 eguneko epea izango du erreklamazioa egiteko jakinarazpena jaso duen egunetik kontatzen hasita. Behin epe hau amaituta behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

## 13. Baztertzeko arrazoiak

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritako arrazoiez gain, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso eskabideak aurkezteko epean Udala Ogasunarekiko, Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituzten erakundeek, ez eta aurretik emandako dirulaguntzak justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu ez dutenak ere.

Justifikatzeko dokumentazioa aurkezte hutsak ez du esan nahi aurkeztutako justifikazioarekin ados dagoenik.

Aipatutako dirulaguntza osoa jaso ahal izateko, egunean egon beharko da Udalarekin zergen ordainketari dagokionez.

## 14. Arau-hausteak, ezarpenak eta itzulketak

Arau-hauste, ezarpen eta laguntzak itzul-tzeko prozedura zein zioei dagokienez Udaltzat 2005eko martxoaren 17an onartu zuen Diru-laguntzen Ordenantza Nagusiak xedatzen duenaren arabera jardungo da.

## 15. Araubide juridikoa

Baldintza hauetan aurreikusi ez dena Udaltzat 2005eko martxoaren 17an onartu zuen Diru-laguntzen Ordenantza Nagusiak eta indarrean dagoen Plan Estrategikoak xedatzen dutenaren arabera arautuko da.

## 16. Datuen tratamendua

Etxebarriko Udalak zure datu pertsonalak tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun gisa, euskararen sustapen eta erabilera politiken normalizazio, antolaketa eta planen kudeaketa helbururako.

Tratamenduaren oinarri juridikoa interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz egindako eginkizun bat betetzea da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko

## 12. Publicación de listas, notificación y plazos de reclamación.

Una vez publicadas las ayudas las personas interesadas recibirán la notificación. Los/las solicitantes disponen de un plazo de 10 días para realizar cualquier reclamación contando desde el día de la recepción de la notificación. Una vez concluido este plazo se publicarán los listados definitivos.

## 13. Exclusiones

Además de las causas establecidas en la Ordenanza General de Subvenciones, no podrán obtener subvención alguna aquellas entidades que en la fecha de presentación de instancias no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Municipal, la Hacienda Foral y la Seguridad Social o no hayan presentado la documentación justificativa de subvenciones concedidas con anterioridad.

La mera presentación de la documentación justificativa no implica la conformidad de la justificación presentada.

Para poder recibir la ayuda municipal íntegra se deberá cumplir con las obligaciones para con el Ayuntamiento.

## 14. Infracciones, sanciones y reintegros

Todo lo referente a la comisión de Infracciones, la Imposición de Sanciones y lo relativo al Procedimiento y las Causas de Reintegro se regirán por lo previsto en la Ordenanza General de Subvenciones aprobada por acuerdo plenario de fecha 17 de marzo de 2005.

## 15. Régimen jurídico

En lo no previsto en las presentes bases será de aplicación lo recogido en la Ordenanza General de Subvenciones aprobada por acuerdo plenario de 17 de marzo de 2005 y Plan Estratégico vigente.

## 16. Protección de datos

El Ayuntamiento de Etxebarri tratará tus datos personales en condición de responsable del tratamiento con la finalidad gestión de planes de normalización, ordenación y gestión de las políticas de fomento y uso del euskera.

La base jurídica del tratamiento es el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento al amparo de la Ley



UDALA  
AYUNTAMIENTO

Euskara Zerbitzua  
Servicio de Euskera

2/2016 Legearen eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeetan oinarrituta.

*Datu pertsonalak jakinarazi ahal izango zaizkie arlo horretan eskumena duten beste administrazio publiko batzuei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei BAO, jakinarazpen-ondorioetarako, bai eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari ere.*

*Pertsona Interesdunak eskubidea du bere datuetara iristeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko ere, jakinarazpen bat bidaliz udalaren helbidera edo [proyectos.rgpd@bilbomatica.es](mailto:proyectos.rgpd@bilbomatica.es) helbide elektronikora, bai eta informazio gehiago jasotzeko ere datuak babesteari buruzko atalean ([www.etxebarri.eus](http://www.etxebarri.eus)).*

2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi y Ley 7/1985 de bases del régimen local.

*Los datos personales podrán ser comunicados a otras Administraciones Públicas con competencia en la materia, bancos, cajas de ahorros y entidades financieras, BOB a efectos de notificación y a la Base de Datos Nacional de Subvenciones.*

*La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación a la dirección del Ayuntamiento o al correo electrónico [proyectos.rgpd@bilbomatica.es](mailto:proyectos.rgpd@bilbomatica.es), así como ampliar información en el apartado de protección de datos en [www.etxebarri.eus](http://www.etxebarri.eus).*

### 3.- Dagokion gastua baimentzea, honela:

- Dirulaguntza ikasleentzat, gurasoentzat, aitite/amamentzat eta begiraleentzat: 12.000,00 €, 3350.48000 aurrekontu-partidaren kontura.

4.- Deialdia Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan (BDNS), Bizkaiko Aldizkari Ofizialan eta Etxebarriko Udalaren egoitza elektronikokoan argitaratzeko agintzea.

5.-Erabaki hau Euskara Zerbitzuari eta Zerbitzu Ekonomikoei jakinaraztea.

Alkateak agindu eta sinatu du eta nik, Idazkariak, horren fede eman dut.

### 3.- Autorizar el gasto correspondiente del modo siguiente:

- Subvención para alumnos/as en general, padres/madres, aitites/amamas y monitores/as: 12.000,00€ con cargo a la partida presupuestaria 3350.48000.

4.- Ordenar la publicación de la convocatoria en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS), en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la sede electrónica del Ayuntamiento de Etxebarri.

5.- Notificar el presente acuerdo al Servicio de Euskera y Servicios Económicos.

Lo manda y firma el Sr. Alcalde, de todo lo cual, yo, la Secretaria, doy fe.

**Alkatea / Alcalde**  
Iker López

**Idazkaria / La secretaria**  
Naiara Lazpita

**Elektronikoki sinatutako dokumentua**  
*Documento firmado electrónicamente*